

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza, E.P.E.L. enpresan hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuko **lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioa eta bigarren ariketa egiteko eguna eta lekua.**

2023ko urtarrilaren 16an eta 2023ko otsailaren 2an egindako bileretan, Nazioartekotze teknikari lanpostu bat (derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza eskakizuna duena) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua epaitu behar duen epaimahaiak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan lehen ariketaren behin-behineko kalifikazioaren aurka.

Bigarrena.- Oposizioan GAI izan diren izangaiek **LEHENENGO ARIKETAN** lortutako **behin betiko kalifikazioa** onartzea eta argitaratzea, gutxienez 10,00 puntu lortu dituztelako eta deialdiaren oinarrietan jasotako ariketako probak gainditu dituztelako. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa, eta egindako probaren batean **EZ GAITZAT** jo direnak kanporatuta geratu dira.

Hirugarrena.- Lehenengo ariketan GAI suertatu diren pertsoneri dei egiten zaie oposizio-faseko bigarren ariketa (kasu praktikoa) egin dezaten. Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzaila izango da, jarraian adierazten den egunean, orduan eta lekuan, NANA aurkeztu beharko dute, baita idazteko tresnak ere:

Eguna: **osteguna, 2023ko otsailaren 16a**


Ordua: **9:45**

Lekua: **Turismo Bulegoa** (beheko solairua), Plaza Circular 1, 48001 Bilbo, ate nagusiko sarbidetik.

Laugarrena.- Lehenengo ariketan GAI deklaratu diren izangaiei **jakinarazten zaie** bigarren ariketaren edukia eta zuzentzeko irizpideak (kasu praktikoa) honako hauek izango direla:

- a) Idatziz eta gehienez ere bi orduz, epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bati buruzko ebazpen-proposamena duen txosten bat egin beharko da.
- b) Zuzentzeko irizpideak: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, ondorioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika, araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea, eta ezarritako helburuak lortzeko erdiesteko prozedura egokiak ezagutzea baloratuko dira funtsean.
- c) Gehienez ere 30 puntu baloratuko da, eta nahitaez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- d) Zuzenketa anonimoa izango da, pliken sistemaren bidez, eta izangaiek ariketa kalifikatu ondoren identifikatuko dira.
- e) Ariketa egiteko, izangaiek ezin izango dute dokumentaziorik ekarri.

Bilbon, 2023ko otsailaren 2a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE

Lehenengo Ariketako behin betiko kalifikazioak

**BE2018-0002
NAZIOARTEKOTZE TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE INTERNACIONALIZACIÓN**

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo atala Primera parte	Bigarren atala Segunda parte	Guztira Total	
*257***9V	ARANZABAL	NARBAIZA	USUE	6,62	0,00	6,62	EZ GAI
*887***8M	HAWARI	BERRIOZABALGOITIA	YASMIN	9,46	5,95	15,41	GAI